


PuLunPe

165. Zenbakia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA





OLERKIA

Irauli ginen, ez zuen inporta
Etxean bezala sentitzen ginen.

OLERKA: TXETXU BIGURI, IRUDIA: EVA IRAZOKI

Etsaingo **Mikeltonean**, Reyes Perez Oiartzun

Etsain, herri zoragarria. Bi auzo, beheiti lehena eta bigarrena gorago. Eta oraindik gorago eliza, Apezetxea eta kanposantua. Etxe bat ere bazen bertan, Elizaga, baina erori zen eta orain ia aztarnarik ere ez da ageri. Herrira iristean, ezkerretara, lehen etxea: Mikeltorena. Hemen bizi da Reyes Perez Oiartzun, senarra, eta Iñaki, bere seme gazteena, Baztango Elkarteko errugbilaria.



doren, hemen jarri ginen bizitzen.

Eta etxe honek Mikeltorena du izena.

Bai, baina ez zuen izenik. Guk konpondu eta familia hazi genuen, eta gure mutiko zaharrena, Mikel, istri-puz hil zitzaigun. Horrengatik jarri genion Mikeltorena.

Etxekoentzat ikaragarria izan zen eta zer erranik ez amarentzat. Hala ere aurrera segi behar. Bere familiakoen laguntza, senideena izan zuen eta, batez ere, amarena, oraindik bere ama, Tomasa, Xiltornean bizi baitu.

Eta hemen dugu etxearen izena semearen ohoretan.

Bestalde, erran beharra dago, Reyesi herriko historia asko gustatzen zaiola. Bertako historia erabat gal ez dadin, herriko etxe guzietakoei eta Etsainekin harremana izan duten beste batzuei fotografiak eskatu eta

bideo eder bat egin du. Lan izugarri polita.

Eta guregana ere hurbildu zaigu, Pulunperen banaketa egiteko prest, ikusi zuenean banaketa hala moduan egiten zela.

Reyes, zu hemengoa al zaitugu?

Bai, ni Xiltornean jaio nintzen. Nire birraitona ehuntzalea zen eta horregatik ehuntzalearena deitzen dio jendeak etxe horri. El del tejedor. Baina, bere izen propioa Jiltorena da. Hala ageri da eskriturretan.

Bai, baino ahoz, euskaldun zaharrei Xiltornea entzun diet nik. X hori ez zekien eskirauak jartzen, jendeak erabiltzen zuen bezala, eta Jiltorena jartzen zuten.

Horrela izanen da. Ba, ni etxe horretakoa nintzen eta Olagueko Santiago Iraizotzekin ezkondu eta herrian bertan etxetxo bat erosi eta, konpondu on-

Zenbat denbora daramazu Pulunpe banatzen?

Bai, orain lau bat urte hasi nintzen banatzen. Nik uste dut aldizkaria etortzen denean, hoberena, berehala banatzea dela eta horrela izan dadin ahalegintzen naiz. Gainera, euskararen alde zerbait egin beharko dugu denok, ez zaizu iruditzen?

Besarkada handi bat, Reyes, eta esker aunditz familia guztiari.

PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO

ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA..

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

Emaila: pulunpe@gmail.com

Zenbaki honetako kolaboratzaileak:

Sareko taldekideez gain, Txurdan.

Koordinatzaileak: Lur Gil eta Iosu Martinez.

Tirada 1.600 ale.


Inprimategia: Gertu - Maketazioa: Iosu M.U

Lege gordailua: NA 721/93

Inprimategira uztailearen 27an bidalia.

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra

HORN



TRIATLO ULZAMA CRO

INSCRIPCIONES E INFORMACIÓN
IZEN-EMATEA ETA INFORMAZIOA

www.navarratriathlon.com

LUGAR LEKUA
8:00 Entrega de dorsales en el frontón Ultzama
Dorsal ematea Ultzama frontoian

SALIDA IRTEERA
9:00 Salida desde el frontón a las presas de Leurtza en marcha cicloturista en sentido inverso a la carrera; o cada uno en su coche
Frontoitik irteera bidebidula martxoan probako kontrako norabidean Leurtzako urtegiataraz; edo bakoitza bere kotxearekin

11:00 Salida presas de Urotz
Urotzeko urtegietatik irteera

ORGANIZADOR: ANTOLOA

Bertsoa.eus

BERTSO BERRIAK
PLAZA BERRITUAN!

"Bertsoaren muina transmititzea da"

RAC VASCO NAVARRO

V TRAMO D VALLE DE ULT
ULTZAMAKO LURDAIN

AVM



"Ostiral kulturalak antolatzea gustatuko litzaizuke? Kontzertuak, hitzaldiak, antzerkiak...
ZATOZ DINAMIZAZIO BATZORDERA!
Hilabeteko lehengo ASTEARTEETAN biltzen gara arratsaldeko 17:00etan gizarte etxean. Anima zaitetz!
Email bidez Informazioa jasotzeko: kulturmuzi@gmail.com"

euskal
biz



**Ikusi Sarean,
"Canaderas en red"
abeltzain elkarteak
"Despacito" abesti
ezagunari egindako
bertsio polita!
"Mujeres al viento"
idatzi Youtuben eta
listo!**



Ur jolasak

Abuztuko asteazkenetan

Miercoles 2, 9, 16 y 23 de agosto

Larraitzarko igerilekuan

Ordua: 16:30-18:30

5 urtetik gorako umeendako

A partir de 5 años

Para participar apuntarse antes de cada viernes de la semana anterior en la recepción o llamando al 948305352



Atzera begiratu besterik ez dago ohartzeko bizpahiru belaunalditan bizimodua errotik aldatu zaigula. Ez da oso urruti joan behar gure herrietan telefonorik, telebistarik eta autorik gabe bizi zeneko garaietara iristeko. Orduan harremanak oso gertukoak ziren, kanpoko gertakarien informazioa oso urria zen eta hizkuntza ohiturak nekez aldatzen ziren.



gordin horrekin. Izan ere, ikasleen hizkuntza ohituretan eragingo balu, hizkuntza proiektuak ikastetxearen esparrua gainditu eta erabilera sustatzeko laguntzen ahal duten gizarte eragile guztien inplikazioa bilatu beharko du, ezinbestean.

Sortzen elkarteari aholkularitza eskatuta, helburu berdinarekin lan egiten ari diren beste ikastetxe batzuen esperientziak ezagutu ditugu. Sortzenen gidaritzapean, eskualdeko bi ikastetxeetako ordezkariak, udal ordezkariak eta Eus-kara zerbitzuko teknikariak proiektua aurrera eramateko erabakia hartu eta heldu den ikasturteko hasieran jarri dute egitasmoaren abiapuntua. Lehendabiziko pausoa izanen eskola komunitateko gurasoei eta, oro har, gizarte-eragile guztiei honen barri ematea, horretarako eginen diren aurkezpenetan.

Egoera soziolinguistikoa hobeki ezagutzeko galdetegi bat bidaliko da eskualdeko etxeetara: aurkezpen horien helburuetako bat da jendea sentsibilizatzea galde-sortak ahal den zintzoen bete eta erantzun gehien jasotzeko. Ikasturtea bukatuta, udan atsedena hartu eta irailean indar-berriturik helduko diogu berriz egitasmoari. Denon parte-hartzea beharrezkoa eta eskertzekoa izanen da, denon ardura baita gure hizkuntzaren biziberritzea, etxetik hasita bizitzaren esparru eta funtzio sozial guztietan euskaraz bizitzeko aukera emanez.



Patxiku Irigoien, ikasketa burua:

“GUK EUSKALDUN ELEANITZAK NAHI DITUGU”

Zein da ikastetxeko egoera soziolinguistikoa?

Ikastetxean kezkatuta gaude euskararen inguruan bizitzen ari den egoerarekin. Orokorrean euskara kantitate gutxiago eta kalitate okerragoarekin egiten dute gure ikasleek.

Egia da, alde batetik bere garaian ikastetxean D ereduan ikasi zuten gurasoen seme-alabak sartzen ari zaizkigula, eta beraz geroz eta guraso euskaldun gehiago dauzkagula.

Baina, bertze aldetik, globalizazioa dela eta, gure ikasleek txiki-txikitatik ingelesa eta gaztelaniarekin erlazio ikaragarria daukate, eta euskararekin geroz eta murriztagoa. Aldaketa telebistarekin hasi zen: TDT-ren sarrerarekin eta ETB-ren egoerarekin. Gero, tablet eta bideojokoekin asko okertu da, ia denak gaztelaniaz baitaude. Ikasleek gero eta euskara gutxiago entzuten dute ikastetxetik kanpo. Guk euskaldun eleanitzak nahi ditugu.

Ikastetxean gela barruan euskara erabiltzen da, baina ondoan irakaslerik ez baldin bada, gaztelaniara jotzeko joera dute ikasle askok. Ikastetxe barruan erabiltzen duten euskara artifiziala izaten da, oso errepikakorra. Hizkuntza erreala, hau da, adierazpen eta esaera gehienak gaztelaniaz ateratzen zaizkie gehienetan. Euskaraz egiten dutenean ere kostata eta gaztelaniazko eragin handiarekin egiten dute.

Ikaslearengan eragina duten talde eragile guztien arteko (ikastetxe barruan zein kanpoan) koordinazio falta ere nabaritzen dugu.

Zein neurri aurreikusten dira egoerari konponbidea emateko?



Hizkuntz proiektu berria garatzea da aurreikusten den neurririk garrantzitsuenak.

Helburu nagusia da talde eragileen arteko koordinazioa handituz euskarari bultzada ematea. Ikastetxeak bakarrik ezin dio egoera honi erantzun. Prozesu luzea aurreikusten da: aurkezpena, diagnostikoa eta ekintzak diseinatu eta aurrera eramatea...

Honetaz gain, ikastetxean hobekuntza planak martxan dauzkagu. Hauetan euskararen erabilera beti kontuan hartzen da: aurkezpenak egiten dira, irakurketak bikoteka, antzerkiak...

Zergatik zaudete arduratuta?

Euskararen maila kaxkarrak ikastetxean ondorio zuzenak dituelako. Ez bakarrik euskara irakaskai, gogoratu ikastetxe honetan bertze ikasgai asko ere euskaraz ematen direla. Horrela, bada, zailtasunik izan behar ez zituzten ikasleak ingurunean, natur zientzian, matematikan... arazoak izaten hasten dira. Gai honek Ikastetxeko estamentu guztiei izugarritzko buruhaustea eta kostua ekartzen die: ikastetxeari laguntzak banatzerako orduan, gurasoei eskolaz kanpoko laguntzak jarri behar dituztenean...

Hala ere, baikor gaude, gaiari eutsi eta denen artean egoera zuzentzea lortuko baitugu.

Fiskaltzak **Bioenergia** kasua artxibatu du

UPNk ikerketa batzordea ixtea eskatu du. EH Bilduk “irregulartasunak” daudela azpimarratu du



Sanferminak ate joka genituela albisteak eza-gutu zen, aurreko Pulunpe inprimategian zegoela. Uztailaren 5ean publikoa egin zen fiskaltzak Iraizozko Bioenergia plantaren kasua artxibatzea erabaki zuela. Joan den maiatzean fiskaltzak ekinbideak hasi zituen plantaren ustezko irregulartasunak ikertzeko, eta ordutik bi hilabete igaro direnean, ikerketa artxibatzea erabaki du. Ultzamako plantaren kontratazio sisteman iruzur zantzuak atzeman zituelako abiatu zuen ikerketa.

Zehazki, AU Ultzamako Udalean zegoenean legea urratu ote zuen argitzeko abiatu zuen ikerketa. Instalazioaren adjudikazio prozesuan eta ondoren ordainketa bikoitzak egin ote zituen ikertu du fiskaltzak. Fiskaltzak ondorioztatu du ez dagoela «prebarikazio» deliturik Ultzamako biogas plantaren finantzaketan. Fiskaltzak bere idatzian dio Ultzamako Udalak ez zuela «bidegabe» jokatu Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak obra hori finantzatzeko erabili zituenean.

AU alderdiko Patxi Tornariari bere balorazioa egiteko aukera eman diogu baina ez du erantzunik eman.

Hala ere, Fiskaltzak emaniko ebazpenean berean irregulartasunak atzematen dituobren aurreproiektua eta proiektuaprestatzeko eta obren zuzendaritza teknikoak eramateko kontratazioan eta obra publikoa esleitzeko eta haren ustiapena eramateko kontratazioan. Irregulartasun horiek bide administratibotik konpondu beharko dira, eta horiexek dira Comptos Ganbarak azpimarratzen dituenak.

Ebazpena publiko egin den une berean, Kontuen Auzitegia Comptosek Ultzamako biogas plantari buruz eginiko txostena aztertzen ari da “bai bailiteke auzi horretan kontabilitate-erantzukizuna egoitea, funtsa publikoen kaltea gertatzen ahal baita”.

UPNren lehen erantzuna:

Fiskaltzak Ultzamako biometanizazio plantaren kudeaketari buruzko ikerketa artxibatzeke hartu duen erabakiak agerian uzten du Gobernuaren osatzen duten “lau alderdien beste muntai baten porrota”.

UPN: “Batzordea itxi”

Sergio Sayas erreionalistak iragarri zuen ikerketa batzordea bertan behera uzteko eskatuko duela UPNk iraileko lehenengo bileran. Fiskaltzak kasua artxibatu badu ez du zentzuzkoa ikusten parlamentuan ikerketak segitzea.

Bakartxo Ruiz: “Irregulartasunak badira Ultzamako plantan”

Iruñean eskainitako prentsurrekoan, EH Bilduko bozeramaileak honakodeklarazio hauek egin zituen plantaren inguruan: “Fiskaltzak delitu penalik ez du ikusi eta artxibatu egin du auzia. UPNk poz handiz hartu du erabaki hori, eta orain eskatu du parlamentuko ikerketa batzordea bertan behera uztea; baina, euren ustelkeria estaltzea baino ez dira ari bilatzen.

Fiskaltzak eta Kontuen Ganberak argi utzi zuten irregulartasunak izan bazirela biogas planta hartan. Besteak beste, ekimen berberarengatik bi diru-laguntza jaso zituztelako. Eta nahiz eta erantzukizun penalik ez egon, ardura politikoak egon daitezke”.



Sanferminak **barrutik** begiratzen



gai dituzu www.sanferminoficial.com helbidean.

Aritzekin hitz egin dugu eta komentatu digu “nekatuta” baina ongi, oso gustura egon zela. Halako festa handietan, milaka dira lanean dauden pertsonak, eta haien esfortzuaren errekonozimendua doa hemen.

“Kaleetik joaten nintzen ea zerbait aurkitzen nuen, eta hori grabatu. Sanferminak oso estetikoak dira, oso “bisualak”. Iruñean ez duzu halako irudirik beste inoiz lortzen... Pare bat egoera aipatzearren, Gorostiagak komentatu digu: “Las miradas” deitutako bideoan, entzierroaren aurreko momentuak grabatu nituen. Korrikalariak agertzen dira, bakoitza bere pentsamenduak buruan dituela. Oso momentu pertsonala zen, ia-ia mistikoa”. Uztailaren 7ko prozesioa grabatu ondoren ikusitakoaz harrিতua geratu zen Aritz: “Kutsu erlijiosoa sentitzen da hor, ikusgarria da jendeak prozesioa nola bizi duen ikustea...”

**Imozko Aritz Gorostiagak beste modu batez pasa ditu sanferminak, festetako webgune ofizialerako bideoak grabatzen. Jaien aurretik plaza-
tu zen eraso sexisten aurkako bideoa grabatzeaz gain, beste bederatzi bideo egin ditu, jaien egunerokotasuna eta irudi bitxiak sartuz. Sarean ikus-**

Parrandarik ez, hori bai: “Uztailaren 6an bueltatxo bat eman nuen, baina beste egunetan lasai asko egon naiz eremu horretan: grabazioak, alde batetik, eta alaba bestetik, zaila da parranda...”

Apeztegi berri, **arropa** denda?



JASOTAKO GUTUNA



Giro atsegina eta polita izan genuen uztailaren 21ean, ostiralarekin, Apeztegi berriko dendan. Ilunberriko “La Hormiga Maia” arropa marka izan genuen bisitan. Selva izena du proiektu honen buru dugun emakume diseinatzaileak. Iruñekoa bada ere, Ilunberri bizi eta lan egiten du, baina Euskal Herria osoan barna aritzen da bere arropa ezagutzeko “Kedadak” antolatuz.

Ez da hau Basaburura etortzen den lehenengo aldia. Due-
la hilabete pare bat Orokietako ostatuan izan genuen

proiektu hau ezagutzeko aukera. Orduan gustura aritu ginen haur, emakume eta gizonendako diseinatutako arropa berezi hau ikusten, frogatzen eta erosten!

Oraingoan ere, lagun talde polita elkartu zen Jauntsaratsen, egun batez, Apeztegi berriko denda arropa denda bihurtuz. Galtza motz eta luze, gona, “sudadera” eta kamiseten artean murgilduta pasa genuen arratsalde. Basaburua bezalako bailara berezian... arropa originala eta berezia ezagutzeko eta erosteko aukera paregabea!!



JASOTAKO GUTUNA

Gobernua: Nafarroan ETB falta dugu



Ana Ollo kontseilariak, joan den ostiralean, azken bi urte hauen balantzea egin zuen, eta hartan hau esan: Gobernu honi esker, "EITB berriz ere ikusten da Nafarroan, UPNren salaketa batek eragindako itzalaldiaren ondoren". Hori ez da egia osoa inondik inora ere. Nafarroako haur gehienak ETB3 gabe daude, hau da, euskarazko marrazki bizidunak gabe.

Zortzi urte daramatzagu horrela; gaur egun 40 urte dituztenek euskarazko marrazki bizidunak izan zituzten, eta gaur egungo haurrek ez. Atzerapauso erabatekoa da.

Nafarroako Gobernuak herritarrei argitu beharko lieke PPren Gobernuak ez duela inolako asmorik ETB3rako lizentziarik emateko. Gazteen-tzako euskarazko irrati publiko bakarra, Gaztea irrati, ere ez dago Nafarroa osoan aditzerik. Espainiak Eskualdeetako edo Ereku Urriko Hi-

zkuntzen Europako Ituna sinatu zuen, zehazki PPko Josep Piqué ministroak, eta hartan hitze-man zuen bermatuko zuela gure hizkuntzan ematen diren telebista eta irratiak hartuko genituela. Baina, egiaz, egin duen bakarra da euskarazko telebista eta irratiaren kontra isunak jartzea eta mehatxu egitea.

Egoera honen aurrean, Nafarroako Gobernuari dei egiten diogu gai honi lehentasuna eman diezaion, eta aliantzak bila ditzan Valentziako erki-degoko Ximo Puigen gobernuarekin. Hark ere bigarren multiplex autonomikoa eskatzen dio PPko gobernuari, TV3 ikusi ahal izateko. Ea behingoan Nafarroako haur guztiek euskarazko marrazki bizidunak ikusteko aukerarik duten.

ETB3-REN ALDEKO PLATAFORMA.
Ordezkarria: Fermin Zabaltza



Irudi batean





Imozko **Xenden** eguna ospatu zen berriz



Aurten uztailaren 25ean ospatu zen Goldaratzen, asteartearekin, eta familia osoarendako ibilbideak eskaini ziren. Santiagoko festarekin batera ospatu zen eta Imozko alkateak argitu zigun asteartea jai-eguna zela probestu nahi zutela, asteburuetan ondoko herri handietan hainbat istorio baitzeuden: “Lekunberri bestak eta Irurtzunen feriak zeudenez, pentsatu genuen egun aproposa izan ahal zela”. Goldarazko herriak hitzordu honen seigarren edizioa hartu zuen, mendizaleen artean dagoeneko erreferente bihurtu den festa.

Horretarako, aurten ere Imozko Udalak Plazaola Partzuergoarekin batera, goiz osoko jardunaldi bat antolatu zuen, eta, bertan, ibilbide ezberdinen proposamenez gain (hiru aukera), ohiko den artisau azoka, puzgarriak,

zozketak, umeendako jolasak, herri kirolak eta dastatzeak eskaini ziren.

Bailararen ibilbideen sarea eta bertako baliabide eta zerbitzu turistikoak ezagutzera emateko sortu zen festa hau. Urtero Imozko herri batek testigua hartzen du, nahiz eta ibilbideek bailarako beste herriak ezagutzeko aukera ematen duten, baita ondoan dauden beste bailaretakoak ere. Ekimen honen helburuetako bat ondoko herri eta bailarekin harremanak estutzea da.

Aurten proposatutako ibilbide luzeena ondoan dagoen Larraun bailaratik pasa zen.



JASOTAKO GUTUNA



Herri bat pertsonen osatzen dute. Horregatik ez da posible herria maitatzea berta bizi direnak maitatu gabe. Basaburuan bada hori ongi erakusten duenik. Aurten hamar urte bete dute.

Urtero urtero gure etxeetan sartzen dira, haien begirada xamurraren bidez hemengo emakumeen lana eta bizitza erakustera, hilabetez hilabete. Basaburuko emakumeen bizitza garai batean nolakoa zen eta gaur egun nolakoa den ezagutzeko aukera eman digute, dokumentalista bihurtuta. Haurrentzako ipuin ez sexistak bildu dituzte, aukera

berdintasuna txiki txikitatik landu beharreko kontua bait da. Inork gutxi daki Irailan izango dugun Haur Eskolaren lehen harria, guraso gogotsuekin batera, beraiek jarri zutela, Ttikiena martxan jartzeko dirulaguntzak eskuratuz eta haien izenaren babesaz.

Bertako eta historian zeharreko emakume borrokalari eta ausartak ezagutu ditugu beraiei esker eta Basaburuan bizi izan diren, bizi diren eta biziko diren emakumeen omenez lorategi txiki bat eraiki dute, hemen bertan.

Herri hau maite dute bertan bizi direnak maite dituztelako, eta beraiekin batera aurrera egin nahi dutelako. Horregatik gaur, Basaburuko egunean, ematen diguten guztia eskertzeko ordua dela uste dugu. Mila esker Basandereok, mila esker Mikaela, Inma, Esther, Edurne eta Basandereok Elkartea osatu duzuen guztiei.

BASABURUKO LAGUNAK

Hiru hildako **Anuen** bi istriputan

Lan istripu batean gazte bat eta beste bi auto talka batean zendu dira



Bi istripu, hiru hildako. Txantrea auzoko langile gazte bat Aritzuko granja baten teilatutik erori eta hil egin zen uztailaren 11n. Gazte iruindarra 8 metroko altueratik erori zen. Istripuaren momentuan inork ez zuen erorketa ikusi eta, ez zegoen argi zer gertatu zen, baina Foruzaingoaren ikerketa azkar batek argitu zuen nondik erori zen gaztea. Ez-behar honen datu kezkarri bat: gazte honek oso denbora gutxi zeraman enpresa horretan lanean.

LAB sindikatuarekin harremanetan jarri gara lan istripuei buruz hitz egiteko eta zera esan digute: “Lau langile hil dira azken egunetan (uztail hasieran) Euskal Herrian, azkena Aritzun”. Hala, sindikatu abertzaleak elkarretaratze bat egin zuen lan heriotzak salatzeke. “38 langile hil dira dagoeneko aurtun, horietako bederatzi Nafarroan. Egoera biziki larria iruditzen zaigu”, adierazi zuen LABeko

ordezkari Rosa Iriartek. Nafarroako datuei begirata, aurtun 9 dira lan istripuetan hildakoak. Iazko datuekin alderatuta, deigarria iruditu zaigu 2016 osoan 9 izan zirela ere hildakoak.

Zahar eta gazte bat auto istripuan hildakoak


Anueko bailaran izandako beste ezbeharra N-121-A errepide “famatuan” izan zen. Kasu honetan zahar eta gazte bat hil ziren. 92 urteko bat eta 20 urtekoa bestea. Zubietan bizi zen agurea kamioi bat aurretatzen ari zela beste auto baten kontra talka egin eta momentuan bertan hil egin zen. Txikitatik Iruñean bizi zen gazte ekuadortarra, aldiz, hiru egun geroago hil zen ospitalean.

Istripu honek oihartzuna izan du sare sozialetan eta jendearen hizketaldietan hildako gizonaren adina dela eta. Gizartea zahartzen doan heinean gidari zaharren proportzioa ere handituz doa.

Datuen arabera, 2000. urtetik hona, 70 urte baino gehiago dituzten gidarien kopurua bikoiztu da, eta orain bi milioi baino gehiago dira estatuan. Nafarroako Trafiko arduradunekin hitz egin dugu eta indarrean dagoen araudira eraman gaituzte: 2009. urtean aurrera atera zen espainiar legedian arautzen zen 70 urteko gidariak 5 urtero berritu behar dutela gida-baimena, lehen bi urtero egin behar zuten.

Argi dago adindun asko oso gidari onak direla, baina drogen kontsumoekin pasatzen den bezala, ez al litzateke guztiontzat positiboa izanzen gidari zaharrei “gaitasun kontrolak” egitea errepidean?

Kanpineko **obrak**, ziztu bizian



Behiak besterik ez zegoen landa zen lehen; orain, berriz, kanpina dirudi.

Aroztegiko kanpinaren obrak aurrera doaz, modu ikusgarrian gainera. Azken aste hauetan azpiegitura lan handienak egin dituzte, eta etorkizuneko kanpinak badu bere itxura orokorra: lur mugimenduak egin dira eta kaleak zehaztu dira eta azken egunetan eraikin nagusia altxatzen hasi dira.

Proiektu honen partaide den Fernando Arriazurekin hitz egin dugu eta komentatu digu “pozik” daudela, “lanak, ustez behinik behin, erritmo bizian doazelako aurrera, aurreikusi bezala”. Proiektuaren epeei begira, abendu aldera bukatzea aurreikusten da, eta kanpinaren irekiera otsaila aldera izango dela pentsatzen dute.



Herri kiroletan, gure **gazteak** berriz aurrean



Sanferminetan berriz ere eskualdeko gazteak protagonista izan dira. Alde batetik Iraizoz ahizpek meritu handiko txapelketa egin zuten eta bestetik Julen Kañamaresek eta Mikel Vicentek trontzan uste baino makurraro ibili baziren ere, aizkoran txapeldun atera ziren.

Bosgarren urtea da Ana eta Ainhoa Iraizoz eltsotarrekin sanferminetako txapelketan parte hartu dutena, baino ez da nolanahiko urte izan: alde batetik Ainhoa belauneko lesio luze baten ondoren entrenamenduetara maiatz hasieran itzuli zen eta bestetik Ana Irlandatik justu-justu

bueltatu zen txapelketarako: “Zalantzan egon gara parte hartu edo ez, zortzi hilabete kanpoaldean egon bainaiz eta gainera ekainaren 30ean itzuli naiz. Astebete besterik ez dugu izan entrenatzeko. Plazara bi eguneko entrenamenduaren ondoren atera ginen, beraz pozik egoteko moduko emaitza lortu dugu”. Lokotxetan ere Ainhoa parte hartu zuela komentatu digu Ana “eta hirugarren postuan geratu zen”.

Oso pozik agertu badira ere, komentatu digute pena dutela uztailaren 2an Euskadiko txapelketan ezin parte hartu izanagatik.

Kañamarek, arpanan gaizki baina aizkoran txapeldun Gazte ateztar honek sentimendu kontrajarriak ditu: alde batetik arpanarekin “suerte txarra” izan zuten eta, irabaztera joan ziren txapelketak alde egin zien; aizkoran, berriz, ongi ibili ziren eta sanferminetako txapelketa irabazi zuten. “Nahiko itxuroso prestatu ginen, baina uztailaren 8koan gaizki eta kale. Oso sentsazio txarrekin geratu ginen, fisikoki oso ongi geunden, baina eskuetatik joan ziztzaigun txapelketa”.

Aizkorarekin, aldiz, hobeki ibili ziren bihamamuneko bikotekako txapelketan: igandeko norgehiagokan, prepartuta joan eta txapela eraman genuen. Mikel Vicentekin bikotekidearekin batera “gustura” ibili ziren. Halere, Julenek ezin etsipena ezkutatu: “Bietarako prestatu ginen eta arpanan ezin”.

Udan prestakuntzarekin jarraituko du Julenek, alde batekin Nafarroako eta bestetik Euskal Herriko aizkora txapelketan parte hartuko du irailetik aurrera. Zorte on!

Gartzarongo pilota **txapelketa**, berriz martxan



Udako klasikoetakoa dugu Basaburuko herri honetako pilota txapelketa. Eta badira 33 urte! Pulunpe baino zaharragoa dugu txapelketa hau!

Uztailaren 23an, igandea, hasi ziren partidak eta datozen hilabeteetan hamarnaka izango dira Gartzarongo frontoian jokatu direnak. Nafarroako txapelketa garrantzitsuenetarikoa dela zenbakiek esaten digute, aurtengo 228 bikote izena eman baitute.

Gartzarongo Tokialai Elkarteak pasa dizkigun datuen arabera “Umeak” kategorian ; 52 bikote eman dute izena, Haurretan;46, Gaztetxoak 46, Gazteak sailean; 38 eta Helduetan beste 46 bikote.

Urtero bezala Euskal Herriko geografia osotik etorri dira pilotariak: Burlatetik, Lazkaoetik, Errioxatik, Barañaindik, Hernanitik...

Urtero bezala ere, eskualdeko Buruzgain taldeak “Helduak” atalean parte hartuko dute, besteak beste. Zorte ona opa diegu guztiei eta gonbidatzen zaituztegu hurrengo igandetan Gartzarona hurbiltzen!







Udako edari egokia: **ardoa**? Edo ardoa sifonarekin?

Uda bete-betean gaude eta kontu arinak kontatzeko garai egokia da. Gaurkoan ardoaren inguruan ibiliko gara, garai zaharretako kontuekin. Basaburuko edantzaleak batetik. Eta bestetik, tabernetako aspaldiko ohiturak. Niri ere ezin sinetsiak zaizkit, hain dira bitxiak! Hainbeste aldatu dira ohiturak!



Aizarotz.-Aizarozko ostatu ezaguna izan dena, Juanen etxea. Aurrean Juan Alberro eta Dominica Goñi, senar-emazteak.

Daniel Eratsun, Berueteko *Txaseneko* semea. Ez du hainbat urte hil zela zahartutakoan. Gizon indartsua, zamak eramaten ikaragarriko abildadea zuena. Eta ardo edantzale porrokatua. Mendi lanetan asko ibilitakoa eta ehizilari fina. Beruetetik 1950ean edo ondorettoan bere guraso eta senideekin Erreenteriara bizitzera joana. Geroztik urtero-urtero, uso ehizara etortzen zena. Ehizara eta lagunak bisitatzera. Lagunkoia izan baitzen beti Daniel.

Juan Alberro igoarrak etxea egin zuen Aizarotzen harizti zati bat Diputazioari erosi ondoren. Geroago, oilategia ere egin zuen goraxeago, eta arbolak kendu behar. Horretarako, deitu ditu Berueteko Daniel eta Erbitiko Federico, oihanetan ibiltzen zen beste mutil bat, hau ere ardozale handia.

Hala kontatu zigun behin Berueteko Sagastiko Antoniok han gertatutakoaz:

-*Txasenetar*'hoi ongi zorrozten eta arpaniin ta, ongi

ai'tzen zena. Federiko ta biek bialdu men'zittin eun guzieko aitzek botzia arpanakin. Eta yakinki ardo eantzeleek zeela eta esan'mentzin bee batten: -Ez'tuzte ba ardo faltan eon bear!

Eta hogeit litroko garrafona ardos beteta biali men'tzittin goiziin ta ...Federiko eguerdieko ardoketa Juanen etxii. Ja, ja, ja!

Kontu bera, baina zerbait aldatua. Horrela kontatzen digu Igoako Ascensio Alsua bi mutil hauen kontuz:

-Juan Alberrok biale zittun bi pion iurre ittia *Bengoetxeko* bordaa, 16 litroko garrafon ardoakin, eta bendatzeko ardoik ez, ta *Bengoetxeko* bordaa etorri zeen ardo bille.

Zer inporta du 16 edo 20 litro izan? Zer inporta zaigu guri *Bengoetxeko* bordan zen edo Juanen etxearen gaineko aldettoan? Egindakoa da inporta zaiguna. Hor gelditu zen, urte askotarako Daniel eta Federikoren balentria!



Garai hartan, ia-ia, ardoa besterik ez zen edaten. Tabernara sartu eta lehen gauza egiten zena pinta bat ardo eskatzea izaten zen.

Pintako botila eta baso bat aterako zizun tabernariak. Eta bertan zegoen koadrila, zuk eskatu botilatik hasiko zen aurrekoa bukatua baldin bazuten. Eta, jakina, ostalariak honekin batera aterako zuen baso bakarretik edo gehienez ere bitik.

Garai haietan ontziak garbitzea lan nekeza izaten zen. Ur berorik ere nekez izanen zen lurreko su haiek zirenean. Perzko edo eltzeren bat urez betea jarri eta lurreko suan berotua; hura gehienez ere. Geroago ekonomiak jarri zirenean, bazuten ura berotzeko depositu bat, zer esanzen dizut ba, 10 bat litrokoa edo. Hori zen guzia.

Esan dudan bezala, denek baso beretik edan beharra izaten zen, ez zen besterik eta. Eta, gainera, bakoitzak hartzen zuen guzia edan behar zuen trago batez. Eta gero, hori da bitxiena, beti utzi behar zen hondar bat, eta hori, mahaipera bota, edan zenuen leku beretik. Zertarako? Edan zenuen basoko ertza garbitzeko; hala tokatuko balitz edo, kutsurik edo ez pasatzeko ondokoari.

Higiene puntu hau erabat hedatua zegoen. Hori bai, mahaipea egoten zen zerri samarra, beharrik gehienetan botekin edo izaten ginen.

Ohitura hau ez da bukatu. Oraindik, Asturiasen, zenbait herritan eta zenbait sagardotegitan antzera izaten da. Sagardotegi horiek, lehen begiratuan he-

Denok baso beretik edaten genuen

mengo barren antza dute, baina berehala ikusiko duzu ez direla hemenen modukoak. Ez barra, ez zerbitzua eta ez edateko era ere.

Han sartzen denak, guk tabernan egiten genuen bezala, sagardo botila osoa eskatzen du, baina barraren beste aldetik zerbitzariak botila ireki eta baso erdi bat zerbitzatzen dio. Klienteak, zutik, bakarrik edo taldean egon, basoa hartu eta dzanga, zerbitutakoa edanen du, eta guk egiten genuen bezala, hondarra, trago aldioro, botako du. Nora? Barraren paretaren kontra.

Barra azulejoz egindakoa izaten da, eta hondar hori behera doa *kotra* gisako batek bilduko duelarik, eta, bideraturik, desaguetxo batera joanen da.

Hori guzia ez da guk egiten genuenaren oroitzapena besterik, berez orain ez bailuke beharrik, kliente guziek beren basoa baitute, baina denbora zaharretako ohitura biziberritzeko asmatua asturiarrek. Oso polita da kontu hau guzia. Eta nolako zeremoniarekin edaten duten, bakoitzak bere botilatik eta bere basotik! Jakina, hurrengo sagardotegian beste botila bat edanen du bakoitzak. Sagardo edantzale hauek ez baitira batekin eta biekin asetzen, lau, zazpi edo hamar botila berdin-berdin edaten baitituzte.

Eta beste kontu bitxi bat bukatzeko. Argentinarrak, beren mate ontziarekin ibiltzen dira noiznahi eta nonahi. Eta adiskideei eskaintzen baitiote, ttutte beretik edan behar izaten da, jakina.

Garai batean ttutte horiek urrezkoak omen ziren, urrea antiseptikoa bide da eta. Gaitzak ez pasatzeko aproposa. Hala esaten dute behintzat.

HIZTEGIA

EHIZILARI=ehiztari.

LAGUNKOI: jendearekin atsegina dena, lagunartea gustuko duena.

PERZKO=pexko: Ura berotzeko edo zerbait egosteko ibiltzen zen ontzia.

ZERRI: zikin baino gehiago da.

KLIENTE edo bezero.

ZERBITU edo zerbitzatu.

KOTRA: cañeria.

TTUTT(e) (a) edo TTUTTU: Ura edo edaria tamainan ixurtzeko hodi mehea. Zahatoaren ttutte, olio ontziaren ttutte...

Letra etzanez jarritako hitz horiek hemengo euskaldun hoberenak ibiltzen dituzte. Gainerakoendako ezezagunak dira.



Mexikotik **Etxalekura** pintzela eskuan

Ľñaki Behorlegi margolariarekin artea, bizitza eta bere proiektuei buruz hitz egin dugu



Azkenean grabagailua itzali behar izan dugu elkarrizketa gehiegi luzatu zaigulako. Ez zuen zentzurik dena grabatzen ibiltzea, azkenean orrialde bakarrean gorpuztu behar delako dena, eta hainbeste gauzez hitz egiteak laburpen lan handia ekarriko baitu. Etxalekuko kontzejuak berritutako etxean du bizitokia eta estudioa Ľñakik. Duela urte eta erdi inguru bizi da bertan. Mexikon margolari ezagun honek bere momentuan erabaki zuen, bere garaian haren aitona "Amerikak" egin zituen antzera, orain alderantzizko prozesua egin behar zuela, sustraietatik sustraietara egindako bidaian.

Herrialde aztekako Guadalajarak 6 milioi biztanle inguru ditu eta Etxalekuk 100 inguru. Poztasunez hitz egiten du hiri eta herriaren arteko bizi erritmo desberdinei buruz: "Hemen dena lasai doa, goize-ro-goizero ekartzen dizkidate baratzeko barazkiak etxera, adibidez".

Lasaitasuna maite du nahi duen momentuan bere proiektu desberdinak diren koadroak margotzeko; baina, halere, pertsona mugitua dela antzematen zaio Ľñakiri, hainbat saltsatan sartzea gustuko duten horietakoa. Azken hilabeteetan zenbait proiektu hasi ditu, eta beste batzuk etorkizunean gauzatzea espero du. Etxean liburutegi herrikoi bat zabaldu zuen, bazituen eta gordetzen joan dituen liburuak edozeini eskaintzeko. Motel doan proiektua da, baina hemendik gutxira izango ditugu berriak istorio honen inguruan. Alaba baten bisita izango du abuztu bukaeran eta probestu nahi du besteak Txelo kontzertu bat eskaintzeko. Izango duzue horren berri bere momentuan ere. Horretaz gain, herriko ume batzuei margotze klaseak ematen ari zaie, eta hemendik gutxira espero du Mus-

kizko Itsasonean erakusketa bat antolatzea.

Biztanle guztiak erretratatzea

Hamaika ideia, mila proiektu. Halere, badago artista honen izaera deskribatzen duen proiektu bat: Etxalekuko biztanle guztiei erretratu bat egitea, dohainik. "Artea herri hauen memorian ere lagundu dezake, 2016 eta 2017. urteen artean herri honetan bizi zirenen aurpegiak erretratuak izatea bada gure historia mantentzeko beste modu bat". Gutxika-gutxika hasi bazen ere, ahoz aho joan da hedatzen ideia, eta momentuz 35 inguru bukatuak ditu: "Badago jendea esaten didana ez duela aterra nahi dena delako, baina harrera ona izaten ari da proiektu hau". Jendea Ľñakiren etxera hurbildu, argazki sesio azkar bat egin eta gero berak lasai-lasai margotzen du bere etxeko estudioan.

Margoak, arimaren ispilu

Imozko bere estudioan sartzeak badu xarma puntu bat: gela handi bat koadroz beteta, izkina guztiak, nahastuak, berak bakarrik ulertzen duen ordenean. Pintura da bere ofizioa betidanik, eta horregatik aurkitu ahal dira estilo eta ildo desberdinetako koadroak, denak oleo teknikan eginak. Alde batetik, Imozko paisaiak aurki ditzakegu: berdeak, koloretsuak... Bestetik Mexikon oso harrera ona duten pertsona biluzien irudiak. Bestetik, herriotzarekin zerikusia duen bukatu gabeko "serie" bat, bestetik...

Lasaitasuna eta kontzentrazioa lortu ditu Ľñakik Etxalekun, eta sortzen ari den artelan eta proiektuak, haren barnean dagoenaren ispilua da, besterik ez.



Dena zulora?

Igoako errota orain berriki berriztatua. Hor ageri ditu ura ugaldere ateratzeko bi aterabide. Eta beste aldean ia etxearen kontra-kontratik hasten da burkaitz handia errepideraino.

Amildu hitza zortzi urtetan ikasi nuen. Oraindik gogoan dut non, herriko askaren inguruan, behor pertxeroi bat edanarazten ari zirenean, eta han gineneko adiskide batzuk ere gogoan ditut: Miel Arotzana, Domikeneko Mieliko eta ni bederenik han ginen (Behorrari zarpas deitzen genion, halakoak baitzituen azazkalak) Amildu esan dut, baina baliteke anbeldu izatea aditutako hitza. Berdin zait, geroztik bi erataraz entzun izan dut. Amildu hitz arrunta da eta entzuten dena oraindik. Amildegia ere bai, nahiz hau askoz gutxiago.

Urte batzuk gehiago izanen nituen iharduki edo jarduki aditu nionean amonari, lehen aldiz, ez dakit zein modutara seguru. Geroztik Isabel Igeltzi entzun izan nion jarduki, jota-rekin. Zerbaitetaz hitz egin esan nahi du. Gutxienez ipar-ekialdeko Nafarroa guztian ibiltzen den hitza. Eta bestaldean ere bai.

Baina gure alderdian orain oso-oso gutxi entzuten da.

Eta Isabeli berari ikasi nion burkandatto. Burkanda ttikia. Nik uste dut burkanda ere, -anda- bukaera horrekin diminutiboa dela. Txikigarria edo diminutiboa bi aldiz sartua egonen litzateke, beraz. Irakurle, zenbait aldiz entzun duzu hitz hori?

Eta harrigarriago, mutiletatik pasea nintzen induri hitza aditu nuenean. Hitz hau ere Isabeli aditu nion lehen aldiz. Ia Nafarroa guztian ibiltzen da

edo zen, Iruñetik gora eta Iruñetik behera, Lizarra eta Larragaraino; eta beste aldean ere bai. Hain zabaldua izandako hitza ia ez da inon entzuten. (Ikus J.M Iribarren eta Azkueren hiztegiak) Literaturan ere ez da erabili ia inoiz. Harrigarria!

Burkanda aipatu dugu eta bere erro berekoa hor dugu Igoan burkaitza Igoa-Arrarasko errota gaineko malda ikaragarria. Zerbaitengatik esaten diote burkaitza, amildegia esanahi bertsua baitu. Eta hitz honen esanahia Igoan ikasi nuen, amildegia esanahia du. Nik ez dut beste inon entzun.

Ez ditzagun gure hitz ederrak amildu, burkaiztu edo erroiztu. Ikas eta erabil ditzagun.

Ardo frexkoa edatea merezi du eta zaharregandik ikastea. Bide seguruena delakoan nago. Izan ongi.

HIZTEGIA

Amildu=Erroiztu=Burkaiztu

Amildegia=Erroiztegia=Burkaitza

Induri: abiltade gutxi: induririk ez daukat. Induri gutxikoa da.

Igor Arroiorekin **berriketan**



Kongresua izan duzue duela gutxi, LAB 4.0 gure garaia lemapean... Laburtuko pixka bat zer gertatu zen?

Kongresu berezia izan da, bizi dugun testuinguru ekonomiko, sozial eta politikoa berezia denez. Kapitalismoa egiturazko krisi batean murgilduta dago eta fase berri bati ekin dio: gehiengoaren lan eta bizi baldintzen ezegonkortasuna sustatzen ari dira gutxi batzuen etekinak areagotzeko. Gainera, energia iturrien agortzeak nahiz hondamendi ekologikoak krisi berriak iragartzen dizkigute. Giza aurpegidun kapitalismoaren ameskeria amaitzen ari da. Eta horren aurrean, nahitaezkoa da alternatiba sozialista bideragarri bat martxan jartzea, jendearen oinarritzko beharretatik abiatuta. Laburbilduz, garai berri baterako sindikalgintzaren oinarriak jartzea izan da Kongresu honen erronka.

Zergatik lema hori?

Kapitalismoaren fase berrian, Industria 4.0 eta antzeko kontzeptuez mintzo zaizkigu. Horren atzean, deshumanizazio prozesu bat dago. Gero eta langile gehiago soberan daude kapitalistentzat, errentagarriagoa zaielako, epe motzean, makinaren bidezko ekoizpena sustatzea, nahiz eta epe erdian energia iturrien agorpenak prozesu hori auzitan jartzen duen. Batzuen ustez, ez da egongo enargiarik ezta gaur egungo teknologia mailari eusteko ere, beraz pentsa. Edozein kasutan ere, egiturazko langabezia eta ezegonkortasunean oinarritzen da Kapitalismoaren fase berria. Eta guk erasoaldi horri tamainako erantzuna eman nahi diogu. Alegia, langileok 4.0 sindikalgintza behar dugu 4.0 Kapitalismoari aurre egin eta alternatiba humano eta bidezkoago bat eraikitzeko.

Ze erronka ditu sindikatuak gaur egun?

Sindikalgintzak ispiluan begiratu eta bere burua berrasmatu behar du, XXI. mendeko langileen-

tzako tresna eraginkorra izan dadin. Lehenik eta behin, langileriaren sektore guztiei antolatu eta borrokatzeko eskaintza egin behar die: prekarioak, bekadunak, etxeko langileak, kontraturik gabe ari direnak, pentsiodunak. Bigarrenik, bizitza erdigunean jarriko duen ekintza soziosindikal integrala eta eraginkorra garatu behar du, hala lantokietan nola herri eta auzoetan. Eta azkenik, aldaketa sozial eta politikoa eragiteko, burujabetza prozesua ikuspegi sozialetik bultzatu behar du, ez baitago sakoneko aterabiderik Espainia eta Frantziako estatuek finkatutako joko-zelaian.

Zu orain idazkari nagusi ondokoa zara, aldaketa asko maila pertsonalean? Kontziliatzeko hobe?

Aldaketa beharrezkoa zen, bederatzi urte eman baititut Nafarroako bozeramaile. Jende berriak hartu du lekukoa Nafarroan eta hori oso onuragarria da, indar eta ideia berriak ekartzen dituelako. Ni Euskal Herri mailan arituko naiz, Garbiñe Aranbururekin batera Sindikatua dinamizatzen; motibatzen nauen erronka da. Lan-talde polita, eraginkorra eta gizatasun handikoarekin arituko naiz eta suerte handia da hori. Kontziliazioa orain arte bezala egin beharko dut, beti ere zaintza, militantzia eta nire inguruarekiko ardura uztartuz.

Langile gazteak, prekarizatuak daudenak... ez dute sindikatuak zerbait hurbil gisara sentitzen... nola lortu hurbilpen hori?

Langile gazteoi dei egiten diegu Sindikatua bere egin dezaten. Ez dezatela Sindikatuak eskaintzen dienarekin konformatu. Har dezatela tresna hau euren eskuetan, prekarizazio prozesuaren aurrean autodefentsa tresna gisa. LAB goitik behera aldatzera goaz hori posible izateko. Baina eurekin egin nahi dugu bidea, eurek berrasmatu behar dute sindikalgintza gurekin batera.

Txopo eroria Erbitin



Txopoari makala deitzen omen zaio. Eta hala jartzen du hiztegiak makalaz: “leku hezeetan hazten den zuhaitz luzea, hosto zabal txortenuak eta zur arina eta usteltzen zaila dituen” Adiera honekin ez da ibiltzen gure alderdian. Guk makala ahula denari esaten diogu: behi makala, mutil makala...

Hemen, fotografian, Ultzama-Basaburuako errepide bazterrean lehengo egun batez ikusi genuena: Erbitiko Itturkon hesian zegoen makaletako bat lurrean haizete batek botea.

Ez zuen ageri, baina barnean zuen ahulezia, barnean zuen “harra”, esaten den bezala. Ederki agerian utzi dio haizeteak ahulgunea eta ustela. Usteltzen zaila omen da, baina oraingoan haizea zoko miran ari izan eta makala heriotzako goatze bigunean utzi du. Laster mila puska egin, baztertu, eta eramanen dute.

HIZTEGIA

Txorten: fruituak eta hostoak adarrera lotzen diren kirten modukoak.

Adiera: esanahia

Ez ginen han suertatu

Orain bi urte edo izan zen harri jauzi hori. Lur jauzia ez dugu esaten ahal inola ere, malkorra baita Añezkarko Ezkidi mendia. Historiaren, orain 2000 edo 2500 urte, hor Kastro bat bide zen, bertan jendea bizi omen zen malkor gainean, etsaiei errazago aurre egiteko. Toki goran bizi eta harresi handi batez inguratutako herritxo batean izaten ziren. Oraindik badira kastro horren aztarnak. Eta harri jauzi hori izan baino urte bat lehenago, bertan ibili ginen Berriobeitiko zendeako beste lagun batzuekin ikusten eta han eman zizkiguten azalpenak aditzen. Goiz ederra Ezkidin pasatutakoa eta bazkari hobea

herrian. Autobiatik pasatzean eta harri jauzi hori ikusterakoan, gogora etortzen zait egun horretan malkor horren ertzean egon ginela aurreko alorrek eta urrutiko mendiak ikusten.

Harkaitza, dudarik gabe, “pipiak” jana zegoen, arrakala ederra izanen zuen barnean ordurako, baina gu ez ginen deustaz ohartu. Eskerrak gure zama arina jasteko adina indar bazuela oraindik!

Joan den mila urtean ez da beharbada izan horrelako harri jauzirik menditxo horretan. Guk ikusteko zoria izan dugu!



KOLDO ETA AINHOA, LOREBIZI PROIEKTUKO KIDEAK:

“Bizitza eman eta zaintzearen **ilusioarekin** sortu zen hau”

Duela pare bat urte hasi ziren ideari bueltaka eta azken hilabeteetan gorpuztu da aizaroztar hauen proiektu berria: bertako landare eta barazkiak landatzen dituzten mintegi ekologikoa. Biekin batera egon gara “amets berri” horri buruz hitz egiteko. BiziLore jarri zioten izena proiektuari baina geroago konturatu ziren aurretik erregistratuta zegoela eta azkenean LoreBiziak izenarekin geratu dira.



Nola hasi zineten istorio honetan?

K- Azkeneko 8 urteak belar-denden munduan lanean egon nintzen eta azkeneko nahiko erreta sentitzen nintzen, eta beste zerbait berria behar nuela planteatzen hasi nintzen. Aldaketa hori ere beste eremu batekoa izan da: bihotza alaitzeko oso ona da kanpoaldean egotea, loratgietan, baratzeetan, landareekin... Bizitza eman eta zaintzearen ilusioarekin sortu zen hau. Beste mota batzuetako terapiak egiten bi-lutzen nuena orain hemen aurkitu dut. Lurra lantzea oso positiboa da guretzat.

Eta nola gauzatu zen?

K- Duela pare bat urte Idiazabal gazta saltzen ari nintzen eta feria batean Bergarako tipo bat ezagutu nuen, berak mintegiak ditu Tafallan eta ekologikoan lan egiten du. Landareei buruz asko erakutsi zidan berak. Ainhoa eta biok proiektua duela hiru bat hilabete hasi genuen eta tarte horretan lurrarekin (eta batzuetan berarekin borrokan) lanean aritu gara, bertako PHa orekatzen eta baita negutegiak eta h-lakoak eraikitzen.

Zertan datza zuen proiektua?

A-Gure ideia da gure landare, lore eta barazkiak landatzea eta gero bide desberdinetatik saltzea. Alde batetik pertsonen kontsumorako dira barazkiak; bai-



na, bestetik, gutxika-gutxika joan nahi dugu poma-dak eta lurrinak egiten ere.

Eta helburu orokorra edo?

K- Pentsatu dugu oso garrantzitsua dela Lurrarekin beharrezko sentitzen dugun erlazioa berreskuratzea. Ferietara asko ateratzen ari gara eta hor ikusten dugu ume eta gaztetxo askok ez dutela naturarekin ia-ia harremanik. Ildo horretan uste dugu belaunaldi desberdinen arteko erlazioa egiteko baliogarria dela gure proiektua: norabidea aldatu behar dugu, telebista, playstation eta futbol gehiegi dago gure mundu honetan... Hirietara begiratzuz, oso interesgarria iruditzen zaigu hiri-baratzeen fenomenoak. Dezentetik mugitzen ari zarete, ezta?

Ferietara joaten gara, badago non mugitu, ez pentsa... Euskal Herri osoko hainbat azoketatik mugitzen gara et pozik gaude momentuz. Horretaz gain badi-tugu beste istorioren bat, Latasako geltoki zaharrean egingo dugu zerbait... (Proiektu horri buruz informazio gehiago duzu aldizkariko bigarren erreportajearen).



LOURDES IRAIZOZ, "ULTZAMAKO ETXEAK" LIBURUAREN EGILEA:

"Asmoa da ultzamarren mendez mendeko **bizimoduaren** bilakaera islatzea"



Nola bururatu zitzaizun proiektu hau?

Bailarako historiari buruzko liburua idatzi nuen, buruan nerabilen jada bailarako etxeen izenei buruzko ikerketa bat egiteko ideia, izen horiek gal ez daitezen; eta, horrekin batera, interesa nuen aztertzeke zer familia bizi ziren etxe horietan, haien lanbideak, horietako batzuk galdu baitira (ikazkinak, ehuleak, emaginak, inudeak...). Asmoa da ultzamarren mendez mendeko bizimoduaren bilakaera islatzea. Lan neketsua izan da, baina azkenean liburu honetan gauzatu da, eta espero dut gure arbasoei buruzko informazio baliotsua izatea.

Zer berezitasun dute Ultzamako etxeak?

Deigarria iruditu zait gaur egun dauden etxe batzuk XVI. mendekoak direla eta litekeena da lehenagoko batzuk ere izatea. Etxe horiek gaur egun dauden tokian berean zeuden, haien egitura aldatuko zen, eta jatorrizko izena mantentzen dute, batzuetan aldaketa txikiren batekin; izan ere, elizako liburuetan (bataioak, ezkontzak, heriotzak...) etxearen izena agertzen da. Etxea izan da duela urte gutxi arte bailarako pertsonen bereizgarria, abizena baino areago.

Gaur egungo gizartean gertatzen ari diren aldaketa guztiak direla-eta, etxe horiek handiegiak dira, ez dira oso praktikoak. Zer

etorkizun dute etxetzar horiek?

Egia da gaur egungo familia ereduendako etxe handiegiak direla; egun ez dute lehenago funtzio bera: familia ugarien bizitokia (belaunaldi bat baino gehiago elkarrekin bizitzen, gainera), uzta gordetzeko arkaxa edo bihitegia, ukuilua... Nik uste dut etorkizuna dela hainbat etxebizitza egitea sendeendako edo saltzeko, egiten ari den bezala, eta landetxeak egitea.

Zertan da liburuaren proiektua?

Orain edizioa prestatzen ari da Altafaylla argitaletxean eta aurkezpena irailean egitea aurreikusten da, segur aski irail erdialdean. Aurkezpena Ultzaman egingen da.

Beste zerbait esan nahi duzu?

Datu bilketa eta liburuaren erredakzioa nik egin ditut, baina nire ustez ultzamar askoren lana da, interes handiarekin datuak, argazkiak, pasadizoak... eman dizkidate, eta horri esker ikusi du argia liburu honek. Bailarako bizilagunekin 50 elkarriketatik gora egin ditut, gehienak adineko jendearekin. Horregatik "Ultzamako Etxeak" bailarako bizilagun guztiei dedikaturiko liburua da. Jende askok galdetu dit noiz argitaratuko den; benetan, lan konplexua izan da, batzuetan zuzenketak eta aldaketak egin behar izan ditut, baina bukatuta dago eta edizioaren zain.



Urtebetetzeak



ARAIA



LOREA



JUANILLO



MARINA ETA SAIOA



MARIA

Ulertu al dezakegu gaurko ekonomia eta politika Berueteko zuhaitz bati begira?

Tximeleta efektua deitzen diote. Txina zaharreko atsotitz honek hala omen dio (momentuz mandarin hizkuntza ez dugulako ezagutzen eta gainera bertan inoiz egon ez garelako), "tximeleta baten hegalean mugimenduak munduaren beste muturrean Tsunami bat eragin dezake", edota "tximeleta baten hegalean mugimendu soilak mundua alda dezake". Gaur proposatzen dizugun bertsioa izanen litzateke holako zerbait: "Berueteko zuhaitz baten hostoen egoerak mundua ulertzen lagun al dezake?".



Gaur egungo mundu eta ekonomia globalizatu honetan, batzuetan pentsatzen dugu gurean ez duela inolako eraginik, baina zuhaitz bakar batek dena alda dezake. Juanillo Markina aditu basaburuarrarekin Berueteko mendietara igo ginen gaztainondoak ikertzeraz. Markina urteak daramatza Nafarroako zuhaitzen osasuna zaintzen eta ikertzen eta duela 6 bat urte jabetu zen gaztainondoei zerbait arraroa gertatzen ari zitzaiela: "Hasiera batean Baztan aldean antzeman genituen lehenengo zantzuak, eta geroztik iparralde osorahedatu da izurritea".

Gaztainondoaren liztortxoaren kasua, beste askoren antzekoa da. Jatorriz Txinakoa den intsektua dugu eta ziurrenik itsasoz ailegatu zen lehenengo aldiz Europara itsasontzi erraldoi horietako kontainerren batean. AEBn 1974. urtean atzeman zuten eta, European, 2002an. Ale helduek 2,5 eta 3 milimetro artean neurtzen dute, beltz kolorekoak dira eta hanka horixkak ditu. Zantzu nagusiak brankiak edo zakatzak izaten dira, gaztainondoen adar gazteetan kokatzen diren hipertrofia berde edo gorrixkak.

Gero eta gehiago dira mundu osotik bidaiatzen diren materialak. Internet bidez gero eta gehiago erosten dugu eta halakoak gertatzea gero eta ohikoa da, erleen hiltzailea den liztor asiarrak kasu. Izurri-

tea kudeatzeko modu "naturalak" badaude, (intsektu horien harrapariak sartu, fumigatzea eta halakoak) baina ez goaz arazoaren errora: kapitalismo globalizatua. Hurbileko sareak garatuko bagenu, ekonomia-beherapena bilatuko bagenu, jasangarritasuna... Argi dago aldaketa integrala izan beharko lukeela, zeren zu halako neurri asko hartzen badituzu baina zure bizilagunak berdin-berdin jarraitzen badu, oso zaila izango baita neurri eraginkorrak izatea ingurugiroaren kasuan.

Gaztainondoa oso zuhaitz "interesgarria" da Juanilloren ustez. Animalien eta pertsonen fruitu goxoak ematen ditu, zura ona du, zuhaitz handiak dira, itzal eder-erria ematen dute, lurzoruan ez dute arazorik sortzen... Baina, gurean behintzat, ez dute dirurik ematen. Beste leku batzuetan ekonomian garrantzia dute: Leon eta Galiziako kasuetan, adibidez, gaztainak bertako ekonomian garrantzi handia du.

Europa mailan, Italia da gaztaina ekoizlerik eta kon-tsumitzailearik handiena. 2002. urtean Italian antzeman zen lehenengo aldiz liztortxoak. 2013. urte aldera, gaitza de-zente hedatua zegoen eta bertako zuhaitzen ekoizpe-na asko jaitsi zen: eta, ondorioz, Leon, Galizia eta Ex-tremadurako gaztainen prezioa asko igo zen. Azkenik, aurtan zonalde horietara ere ailegatu da liztortxoak...

Eta ekonomian garrantzi handia duenez, neurriak mo-mentuan bertan hartu dira: komunikazio kanpaina, ekoizle, herritar eta teknikarien arteko koordinazioa, izurritearen aurkako harrapariak sartzea...

Urteak dira Nafarroan detektatu zela eta ez da inolako neurririk hartu. Zergatik? "Arrazoiak asko dira", esaten digu Jaunillok, "Ekonomian eraginik ez duelako, gizar-tean ingurumenarekiko kontzientziak faltagatik, eta horren ondorioz klase politikoa ez da inplikatzeko eta arazoa "ahazten" da".

Gehiago hitz egingo dugu gure zuhaitzen gaitzei buruz, edo hobe esanda zuhaitzei begira ekologia, politika eta ekonomiari buruz hitz egingo dugu...

Parke Mikologikoaren 10 urteak pegatinatan zure aztarna utzi

Garrapoko lagunek prestatutako elkarretaratzean, bertara hurbildutakoek zenbait ideia eta idazki jarri zituzten irudiko "ziza" horretan. Hona laburpena.

HISTORIA APUNTE BATZUK

- 2006: Onddo produkzio handia eta biltzaile gehiegi.
2007: Masifikazio bukaeraren hasiera. Hedabideetako zalaparta.
Zergatik mugatu? Zergatik ordaindu?
2008: Bertakoek helburu nagusia ulertzeko zailtasuna.
2009: Web gunea abian. Ziza produkzio ugaria
2010: Herritarren mesfidantza
2012: Autofinantzazioa. Ziza produkzio ugaria. Merkaturatzeko esperientzia.
2013: Zerbitzuen sektoreak proiektutik urruntzea.
2014: Denboraren poderioz, zentzu guztietan sendotu da, biltzaileen eta bizilagunen ikuspegitik. Orokorrean hobetako.
2015: Baimen salmentaren errekorra. Ehiztariekiko harreman positiboa.
2016: Parke mikologikora bezeroak etorri ziren urte bakarra. Herrian mugimendua nabarmentzen da eta ostatuendako ona da.

SORTU ZIREN PUNTUAK

- Bertakoen parte-hartze txikia.
- Toki-entitateen parte-hartze txikia.
- Modan dago, arauturik ez balego jende asko etorriko litzateke.
- Pisten hondatzea.
- Interferentziak auto-rallyarekin
- Mikologiaren mundua hobeki ezagutzea. Mugimendu gehiago herrietan eta ostatuetan. Basoan jende gehiago ibiltzen da eta zapatuta gelditzen da. Zizei buruzko kontzientzia handiago egon beharko luke, ziza asko hausten dute. Hala eta guztiz ere, ostalaritzan ez dabil jende gehiago. Web gunea ongi dago, jendeak informazio gehiago baitu.
- Ezadostasun handia kanpotarrek parkearen onurari buruz duten iritzian.

LANTALDEEN APORTAZIOAK:

- Bertakoak ez dira inplikatzeko, bilerara etorri den jende kopuru txikia horren lekuko.
- Biltzaile gehiegi etortzen zen, eta horrek arautzeko beharra ekarri zuen.
Azalpen asko eman behar da arautzea ulertarazteko.
•Zaila da, ia ezinezkoa, arautzea denon gustura egitea.
- Arautzearen eragin turistikoaren eremua mugatua da, ordu bat autoan nahikoa da etortzeko, eta, beraz, ez da beharrezkoa gaua establezimendu turistiko batean pasatzea.
- Beharrezkoa da pistetarako sarrera mugatzea, bialarako jendeari sarrera mugatu gabe. Autoen sarrera nola arautu aztertu behar da.
- Publizitatearen kontrola: Ultzama onddoarekin

KONPONBIDE PROPOSAMENAK

- Nafarroako Gobernuak foru erkidego osoan arautzeko gaia aztertzea. Karnet erregionala.
- Funtzionamendua mantentzea ongi dago.
•Proiektuaren etekinak pistetarako eta abarrerako izatea.
- Pistak katez ixtea eta soilik bizilagunak pasatzea. (gai horrekin ikuspegi kontrajarriak daude)
- Zail ikusten da bertakoak proiektuan inplikatzeko.
- Urteko abonuen sustatzea (autoen matrikularekin) eguneko baimenen kaltetan.
- Mikologiaren inguruko hezkuntza lantzea ikastetxeekin.
- Arautzeak hiri eta landa eremuaren arteko harremanak sortzen laguntzen du, eta populazioa finkatzen du.

NEUMÁTICOS BETELU**Juan Alonso Ortiz**

Tailer mugikorra

Pneumatikoen aldaketa

Zulaturako pneumatikoen konponketa

Erdiko karrika, 8A

Aizarota (Basaburua)



info@neumaticosbetelu.es

646 47 41 66

- Zuk nahi duzun tokira joango gara zure pneumatikoak konpontzera
- Kostu gehigarriarik gabe kontsultatu prezioak
- Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu



Mantentze-lanak Instalazioak Konponketak
Argi publikoak Proiektuak Aurrekontuak
Boletinak eta Ziurtagiriak

KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

**629 31 53 32 - 722 766 835****Lizaso****karikolaregoitz@gmail.com****DABID ELIZONDO PINTURAK****DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA****TEL.: 678 623866****argapin@hotmail.com****ZIAURRITZ**

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberritzea
iragazgaizteak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe



Bizi bizikletan segurtasunez

Errespetuz
ibiltzea
guztion
kontua da

Circular
con respeto
es cosa
de todas
y todos

VER Y DEJARTE VER

Las luces roja y blanca son obligatorias
Mejor usar ropa clara y visible



IKUSI ETA BESTEEK IKUS ZAITZATELA

Argi gorri eta zuria nahitaezkoak dira
Erabili arropa argia eta ikusteko modukoa

NO TE DISTRAIGAS

Prohibido el uso del móvil y auriculares
Las distracciones son peligrosas



ERNE JOAN

Debeku dira mugikorra eta entzungailuak
Erne ez joatea arriskutsua da

USA SIEMPRE EL CASCO

Te puede salvar la vida
Menores de 16 años, obligatorio



ERABILI BETI KASKOA

Bizia salbatzen ahal dizu
16 urtetik beheiti, nahitaez erabiltzekoa

ALCOHOL Y DROGAS

Circulando, mejor ni alcohol ni drogas
Única tasa segura, 0,0



ALKOHOLA ETA DROGAK


Bidean, hobe alkoholik eta drogarik gabe
Tasa seguru bakarra, 0,0



metros

1,5

metro



EN COCHE

Adelantando, respeta la distancia de seguridad
Puedes rebasar la línea continua sin crear peligro a los demás
Al volante, ni alcohol ni drogas

AUTOZ

Aurreratzean, errespetatu segurtasun tartea
Marra etengabea pasa dezakezu besteak arriskuan jarri gabe
Gidatzean, ez alkoholik ez drogarik

Vive en bici de forma segura